

**HITZARMENA ZESTOAKO UDALA ETA SAN JUAN EGOITZA**  
**EGUNEKO ZENTROA ETA ETXE BABESTUEI BURUZ**

Zestoa, 2018ko abenduaren 21ean

ELKARTU DIRA:

Alde batetik, Jose Francisco Mendizabal Jauna, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria, hitzarmen hau sinatzeko 2017ko apirilaren 6an Udal Batzarrak baimendua.

Bestetik, Koldo Intsausti Esnal Jauna, 44152717T NAN zenbakia duena, San Juan Fundazioaren ordezkaria.

Aldeek elkarri hitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridiko nahikoa onartzen diote eta euren adostasunez,

**OINARRI JURIDIKOAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen baitan, Zestoako Udalak, bere interesak kudeatzeko, bere aginpide esparruan, jarduera mota guztiak bultza ditzake, eta herriaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezakeen herri-zerbitzu oro egin.

Bestalde, kontuan hartzekoa da Lankidetzaren printzipioak Administrazioen arteko harremanaren zutoi garrantzitsuenetakoa direla. 40/2015 Legeko 3.1 artikuluan agertzen den gisa, Administrazioak bere jarduera eta harremanetan, Administrazio Publikoen arteko lankidetzaren, elkarlana eta koordinazio printzipioak zaindu behar ditu.

Gainera, kontuan izan behar da Gizarte zerbitzuen euskal sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenak 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak arautzen dituela eta 69. artikuluan ahalbidetzen dira

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako prestazio eta zerbitzuen horniketarako hitzarmenak.

Ilido berean, 70. Artikuluan ahalbidetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen lankidetzako esparru-akordioak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.

Gizarte Zerbitzuen esparruan, 70/1993 Foru Dekretua izan behar da kontuan eta 3. Artikuluan hitzarmenak edo lankidetzak konbenioak izenpetzeko Udalei eskumena aitortzen zaie.

Zentzu honetan, Zestoako Udalak, irabazi asmorik gabeko San Juan Fundazioaren jarduera herri onurakotzat jotzen du eta beren jarduerak aurrera eramateko herri baliabideak erabiltzea ahalbideratu nahi du, erabiltzaileei ahalik eta zerbitzu hobereena jasotzeko eskaintza integral bat emanaz.

## **ADIERAZTEN DUTE**

1.- Zestoako San Juan Fundazioa irabazi asmorik gabeko fundazioa da, 1919 urtean sortua, bere jarduera ongintza-sorospena eta langintza dira eta zerbitzu sozio sanitarioak eskaintzen dizkiete adineko pertsona dependenteei.

2.- San Juanen zahar Egoitza eta Eguneko Zentroaren eraikina elkarren aldamenean daude zatitzailerik gabe, 2002ko martxoaren 21an, San Juan Fundazioak Zestoako Udalari eguneko Zentroa egokitu ahal izateko beharrezkoak ziren lur sailak dohaintzan eman ostean. Birmoldaketaren helburua erabiltzaileei asistentzia arloko zerbitzu osatuago bat izan zen. Horrela, Zestoako San Juan Fundazioak, egoitzaz gain, Zestoako Eguneko Zentroa eta Etxe Babestuen zerbitzuak kudeatu ditu, beti ere, erabiltzaileei zerbitzu integral eta kalitatezko bat eskaintzea helburu hartuta. Horren erakusle izan da

2015. Urtean, San Juan Fundazioak Zilarrezko A Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria jasotzea.

3.- Adineko pertsona dependenteei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan ezinbestekoa da irizpide eta jardunbideak koordinatu eta homogeneizatzea; baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, sartzeko berdintasun irizpideak bateratzeko, kontraprestazio ekonomiko egokiak eskaintzeko eta gizarte zerbitzuen oinarritzko sarean kalitatezko zerbitzuak eman ahal izateko.

4.- San Juan Fundazioaren helburua erabiltzaileei ahalik eta zerbitzu onena ematea da, herriarekin duen lotura ahaztu gabe. Alegia, Bezeroei, Herriari eta orohar gizarteari ahalik eta zerbitzu hobereana ematea eta horretarako, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua erabiltzen jarraitzea beharrezkotzat jotzen du lantokiaren garapena bermatzeko.

5.- Zestoako Udalak kudeaketa publikoaren efizientzia hobereana bilatu nahi du, zerbitzu publikoaren erabilera errazena eta erabilgarriena izan dadin.

## **ESTIPULAZIOAK**

### **Lehena.- Xedea**

Hitzarmen honen xedea bereizketarik gabeko zerbitzu integral bat ematea da ahalik eta efizientzia hobereanekin. Kudeatzen dituen hiru baliabidetako edozeinetan dagoen adineko pertsona dependientea, talde baten partaide sentitu dadin, hots, baliabideak bereizteak beraien arteko bereizkeriak ekiditea. Horrela, Eguneko Zentroak eta Etxe Babestuek erabilera egokiena izatea lortzeko.

### **Bigarrena.- Leku kopurua**

Eguneko zentroaren edukiera finkatuko da menpeko pertsona adinduentzako eguneko zentroetako araudiaren aplikazioaren arabera.

Hitzarmen honen xedean jasotzen den leku kopurua honakoa izango da:

1.- Eguneko Zentroa:

- Astegunetako egonaldiak: 15
- Asteburuetako eta jai egunetako egonaldiak: 10

2.- Etxe babestuak

- Urte osoan: 8

### **Hirugarrena.- Zentroaren izaera eta kokapena**

Zestoako Eguneko Zentroak eta Etxe babestuek izaera publikoa dute eta Bide zarra 5an, kokatuta daude, San Juan egoitzaren ondoan.

### **Laugarrena.- Zentroko Erabiltzaileak**

Zentro honetan zaindutako pertsonak ondoren aipatuko den talde batekoak izan beharko dute:

1.- Eguneko Zentroa:

- Ezinduen eta ezindu larrien balorazioa duten 60 urte baino gehiagoko pertsonak. Salbuespenez, gai diren pertsonen eskaerak onartuko dira, beti ere, plaza hutsak izanda, eta, ez balitz egongo herrian pertsona ez-gaituen lekuan eskaerarik.

2.- Etxe babestuak:

- 60 urtetik gorako pertsonak, autonomoak edo menpekotasun arinekoak izango dute lehentasuna (indarrean dauden balorazioen arabera). Salbuespenez,

60 urte baino gutxiagoko pertsona autonomoak edo menpekotasun arina dutenak onartuko dira.

### **Bosgarrena.- Zentroan sartzeko jardunbidea**

Zerbitzuaren prestazioak erabiltzeko baimena emateko ondoko prozedura jarraitu beharko da:

- Zerbitzuaren eskaera: Udaletxeko Gizarte Zerbitzuan egingo da. Beste herrietako eskatzaileak, jatorrizko Udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bitartez egingo dute eskaera.
  
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa: N.A.N fotokopia, dirusarreraren agiriak, txosten medikuak eta baldintzak betetzen dituztela frogatzeko beharrezkoa den beste edozein agiri.
  
- Zerbitzua erabiltzeko baimena: Gizarte Zerbitzuak aurkeztutako dokumentua baloratu ostean, erantzun baikorra ematen badu, Udaletxeko organo eskudunari informazioa eman eta zerbitzua erabiltzeko baimena emango du.
  
- Zerbitzua ukatzea: Betebeharreko baldintzak ez badira betetzen edo Zestoako Gizarte Zerbitzuak baliabide egokia ez dela balioztatzen badu eskatzailearen behar egoera kontuan hartuta, zerbitzuaren prestazioa ukatu ahal izango da.

### **Seigarrena.- Baliabideak eta antolaketa**

Hitzarmen honetan sartzan diren zerbitzuak eskaintzeko azpiegitura eta ekipamendu egokiak izan behar ditu erakundeka. Horretarako San Juan Eguneko Zentroa, Zestoako Bide zarra 5an kokatua, gaur egun 15 plaza dituelarik eta Etxe babestuak (4 apartamendu), Eguneko zentroaren goiko solairuan kokatzen direnak, 8 plaza dituelarik.

Zentroaren funtzionamendu egiturek hitzarmenean adierazitako zerbituzak modurik onenean eskaintzeko modukoak izan behar dute eta horien lehenengo helburua erabiltzaileei ahalik eta bizi kalitate handiena eskaintzea izango da.

Bigarren baldintzan zehaztutako zerbitzuak emango direla bermatzeko, erakundeak giza baliabide nahikoak eta egokiak izango ditu.

Mantenimenduari eragiten dioten edozein aldaketa egin ahal izateko egituran, baliabideetan eta antolamenduan, aldez aurretik Udalarekin hitzartu beharko da.

### **Zazpigarrena.- Zerbitzuaren edukia**

Zerbitzu horrek eskaini beharreko gutxiengoa eta betebeharreko prestazioak ondoren aipatzen direnak izango dira:

#### 1.- Eguneko Zentroa:

- Banan banako oinarrizko atentzioa eta eguneroko jarduera berregokitzea.
- Janari zerbitzua.
- Programa okupazionalak.
- Familia atentzioa.
- Osasun ikuskaritza.
- Atentzio soziala.
- Aukerako zerbitzuak.

- Garraio zerbitzuak.
- Podologia zerbitzuak.
- Pelukeria zerbitzuak.

2.- Etxe babestuak:

Oinarrizko zerbitzuak:

- Ostatua.
- Zaintza eta gainbegiratzea.
- Eremu komunen mantentze-garbitze lanak.
- Informazioa eta segipena.
- Bitartekaritza, gatazka eta kexak agertzen direnean.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Parte hartzea sustatzea.
- Erabiltzailearen familiei harrera eta informazioa.

Zerbitzu osagarriak:

- Janari zerbitzuak.
- Etxez-etxeko laguntza.
- Eguneko zentroa.

### **Zortzigarrena.- Lan egunak eta eguneko zerbitzu orduak**

1.- Eguneko Zentroa:

A.- Astegunetako egonaldiak:

Oro har, astegunetan, goizeko bederatziak eta arratsaldeko bostak bitartean izango dira egonaldiak, gutxienez egunean sei ordukoak.

Era berean, eguneko zentrora sartzeko eta eguneko zentrotik irtetzeko orduak garraio mota, bidaiaren denbora eta joan-etorri kopurua ikusi ondoren zehaztuko dira.

Eguneko zentroa erabiltzeko aukerak ahalik eta gehien malgutzeko eta lana ahalik eta ondoen egiteko, erabiltzaileek beste aukera batzuk ere izan ditzazkete. Hain zuzen ere:

- Ez egunerokoa: astean egun batzuetan bakarrik.
- Ordu batzuetakoa: egunean ordu batzuetarako joan daiteke, jarduera eta programa batzuetan parte hartzeko. Gainera, zentrora egunero edo aldizka joan daiteke ordu batzuetarako.

Udaletxeko organo eskudunak erabakiko du, erabiltzaileak ordaindu beharreko kopurua aipatutako zerbitzu mota ezberdinetan.

B.- Asteburuko egonaldiak:

Eguneko zentroaren zerbitzua jai egun eta aste buruetara ere izango da. Etxe babestuetan asteburu eta jai egunetan janari zerbitzua eskainiko da soilik, bestelako zerbitzuak astegunetan emango direlarik.

Etxe babestuak:

Segurtasun eta babes arrazoiak medio, zentroak ordutegi eta barne araudi propioa izango du. Erabiltzaileek sinatuko dute erabiltzaile izaera hartzen dutenean eta bertan, ezartzen diren arauak bete beharrekoak izango dira.

### **Bederatzigarrena.- Lekuen sailkapena**

Hitzarmen honen xede diren lekuak honelakoak izan ahal dira:



1.- Lekua betetzen duen pertsonaren ezaugarriak kontuan hartuta:

- Pertsona ezinduak.
- Pertsona autonomoarentzako lekua hitzarmenean jasotako baldintzetan.

2.- Okupazioa kontuan hartuta:

- Betetako lekua.
- Gordetako lekua.
- Leku hutsa.

3.- Beharrezko atentzio maila kontuan hartuta:

- Erabateko ardura.
- Ardura partziala.

### **Hamargarrena.- Gertakariak**

San Juan Fundazioak Udalari jakinaraziko dizkio erabiltzaileen altak eta bajak, berauek gertatzen direnean.

Aldi baterako bajatzat joko da eta lekua gordetzeko eskubidea izango du erabiltzailea ospitale batean sartzeak, "Atsedean Luzeko" programako aldi baterako egoitzetan egonaldiak eta Udalak horrela hartutako antzeko gertakarien ondoriozkoak.

Behin betiko bajatzat joko da borondatezko baja, heriotza eta Udalak antzeko gertakarien ondorioz horrela hartutakoak.

### **Hamaikagarrena.- Ordain ekonomikoa**

Zestoako Udalak hitzarmen honen xede den zerbitzu integralarengatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren tarifak kontuan hartuta 400.392€ emango dizkio. Ekarpen ekonomikoaren xehetasuna hitzarmen honen eranskinean jasoko da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen honetan jasotako oinarriak aldatzen baditu, dagokion egokitzapenak egingo dira.

### **Hamabigarrena.- Ordaintzera behartutako aldeak**

Erabiltzaileek, beraien ordezkariak, jatorrizko Udalean eta Gizartekintza Departamenduak ordainduko dituzte, Erakundeak burutu beharreko zerbitzuen ordain ekonomiko gisa finkatutako zenbatekoa. Gizartekintza Departamenduak hitzarmen baten bitartez, ezarriko ditu erabiltzaile ezgaituen egonaldiengatik ordaindu beharreko zenbatekoak, indarrean dagoen balorazio tresnen arabera.

#### **FINANTZAKETA MODUA:**

- GFAk urtero ezarriko du, aurreikusitako leku/zerbitzuaren kostua, pertsona ezinduak eta ezindu larrientzat.
  
- Zestoako Udalak urtero ezarriko du, Udal Organo eskudunaren bitartez, aurreikusitako leku/zerbitzuaren kostua, gai diren pertsonentzat.
  
- Erabiltzaileek eta beraien Udalek ordainduko dute lekuaren kostuaren eta Gizartekintza Departamenduaren ekarpenaren arteko aldea, dagozkion arautegiak zehazten duen moduan. Erabiltzailearen Udala izango da ordainketa horren bermatzailea.
  
- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa: urtero, gizartekintzak ezarriko du pertsona elbarri eta elbarri larrientzat ordaindu beharreko tarifa, aurrez beren sarrera Gizartekintzak onartu beharko duelarik.

Halaber, zerbitzu osoa erabiltzen ez den kasuetan, Zestoako Udalak, ezarriko ditu urtero ordaindu beharreko tarifak erabilitako zerbitzuaren arabera.

Era berean jokatuko da gai diren pertsonen tarifak ezartzerakoan.

Lekua gorderik dagoen kasuetan, Foru Dekretuan jasotzen dena aplikatuko da.

### **Hamahirugarrena.- Ordaintzeko modua**

Ordaindu beharreko kopurua finkatu ondoren, programaren erabiltzaileak edo bere ordezkariak zuzenean egingo dio ordainketa Zestoako Udalari, hilabeteko epemugan.

### **Hamalagarrena.- Ebaluaketa Teknikoa**

Udalak, gizarte langilearen bitartez, aldizka Zentroaren funtzionamendua ikuskatuko du, Udalak ezarritako moduan. Ondorioak, Gizarte Ongizate Batzordeari jakinaraziko dizkio. Ikuskaketa honen ondorioz aurkezten diren aldaketak edo proposamenak Udalak onartu ezker, San Juan Fundazioari jakinaraziko zaizkio, dagozkion aldaketak egin ditzan.

### **Hamabosgarrena.- Ebaluaketa ekonomikoa**

Zestoako Udalak Zentroaren ebaluaketa ekonomikoa burutuko du. Horretarako adierazten den aldizkakotasunez honako dokumentazioa jaulkiko du:

- Gertatzen diren unean: zerbitzuaren erabiltzaileen altak, bajak eta lekua gordetzeko egoerak.
  
- Urtean behin: azken ekitaldiarekiko erakundearen urteko kontuak, eta ekitaldiaren memoria ekonomikoa.

### **Hamaseigarrena.- Eguneko ebaluazioa**

Zentroak astero emango die erabiltzailearen senideei eguneko ebaluazioaren inprimakia.

### **Hamazazpigarrena.- Iraungipenerako arrazoiak**

Hitzarmen hau bertan behera geldituko da ondorengo kasuetan:

- Hitzarmenaren edozein estipulazio bete gabe uztean, eduki daitezkeen kalteordainak eragotzi gabe.
- Sinatzaileen arteko akordioa.
- Aldeetako batek uko egitea. Aurreabisua hiru hilabeteko epearekin egin beharko da.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean Organo Eskudunak aldaketak egiten baditu, erabiltzaile tipologia zein zerbitzuen finantzaketa sisteman, haiek berehala eragingo diote hitzarmen honen xede diren lekuei.

### **Hemezortzigarrena.- Iraupena**

Hitzarmen hau 2018ko urtean sartuko da indarrean eta 4 urteko iraupena edukiko du, beti ere, aldeek hiru hilabete lehenago berariazko salaketa aurkeztu ez badute. Hala ere, bi aldeen adostasun espresua medio, hitzarmenaren iraupena beste hainbesteko iraupena luzatzeko aukera izango da. Beti ere, Hitzarmenaren iraupenak eta luzapenek ezingo dute 10 urtetik goragokoa izan, horrela arautzen baitu uztailearen 27ko 70/1993ko Foru Dekretuko 5. Artikuluak.

### **Hemeretzigarrena.- Eguneko Zentroaren eta etxe babestuen erabilera**

San Juan Fundazioa eta Zestoako Udalaren arteko harremanak sendotzeko asmoarekin eta bi entitateen elkarlana bultzatu eta

hobetu nahian, eguneko zentroaren eta etxe babestuetako gela amankomunen erabilera konpartitua izango da Egoitza eta eguneko zentroko erabiltzaileentzat, beti ere, erabilera horrek ez badu Eguneko Zentroaren jarduera oztopatzen.

Eta bi erakundeen adostasunez sinatzen dute dokumentu hau, ale bikoitzez, goian aipatutako leku eta datan.

Zestako Udala

Jose Francisco Mendizabal Irigoien

San Juan Egoitza

Koldo Intsausti Esnal